48 21

ZALAMAKO ZOHIKAZTEGIA

Zohikaztegi bat lurralde harroa eta urez beterikoa da, Sphagnun generoa (zohikaztegi goroldioak) eta azidofilo motatako beste batzuk nagusitzen diren begetazio batek estalita. Haien hildako zatiak pilatzen eta estratifikatzen dira airerik ez dagoen hondoetan, eta ondorioz, zohikatza sortzen dute. Zohikaztegiak natura interes handiko gunetzat jotzen dira.

Zohikatza jatorri sedimentarioko material organiko bat da eta berezko ezaugarria karbono ugari izatea da (%55era arte). Ez da oso trinkoa, baina oso porotsua da eta oraindik ikaztu gabe dauden hondakin begetalak ditu. Lehortu ondoren, erregai gisa (baina antrazita, harrikatza edo lignitoaren ahalmen kalorifiko gutxiagorekin) edo lorezaintzan, laborantza begetalerako substratu gisa erabiltzen da.




Sare geotestil biodegradagarri batek babestutako zohikaztegiaren sektore bat, enborren bidez finkatuta. Iturria: Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua. CCbySA.

Zalamako zohikaztegia Bizkaiko mendebaldeko muturrean kokatuta dago (Karrantza udalerria), Gaztela eta Leoneko mugan. Berez, zohikaztegiko azaleraren heren bat inguru Valle de Mena udal mugarteari dagokio (Burgos). Zalama mendi magaleko sektore bat okupatzen du, 1325 m altueran. Bere topografian zonalde altuxeagoak aurki ditzakegu ekialderantz eta mendebalderantz eta beheranzko malda handia, berriz, ipar eta hegoalderantz. Zohikaztegia nahiko laua den mendixka batean geratzen da.

Estalki zohikaztegia edo “zohikaztegi altuak” motatakoa da, bere ondoko inguruan altxatzen baitira. Horiek sortzeko beharrezko ura ez dator ur ibilera batetik, zentsu hertsian, baizik eta bertan sarritan ematen diren prezipitazio atmosferikoetatik dator. Zohikatzeko geruzaren lodiera metro erdi eta bi metro artekoa da, eta higatutako bi sektore aurkezten ditu, non zohikatza azaleratzen den (marroiez 2007ko ortoargazkian).

Zohikaztegiko gaur egungo egoera “jarduerarik gabekotzat” jo daiteke, ez baitago zohikatza sortzeko akrotelmarik edo begetazio geruzarik. Esfagnoak, alegia, zohikatza eratzen duten nagusiak, urriak dira, eta isolatutako orban handiak besterik ez dute sortzen. Azkenik, zohikaztegiko azalera nahiko lehor dago,



Ortoargazkia 2007. Iturria: Eusko Jaurlaritza / G. Vasco; geoEuskadi. Zohikaztegia, oraindik hura defendatzeko jarduerak burutu gabe. Ikus daiteke bertan ganadua dagoela. Lerroa Bizkaia (iparraldean) eta Burgosen arteko (hegoaldean) muga da.

begetazioak estali gabeko fronteetatik ura galtzen duelako, hala ere, neguan, udan lehortzen diren putzu txiki batzuk sortzen dira.

Babes neurriak hartu diren arte, denetarik jasan behar izan dute: abeltzaintzaren presioa, ibilgailuak igarotzea, zohikatza ateratzea eta baita nahita eragindako suteak ere. Horien guztien ondorioz, zonaldea higatzea eta baldintza hidraulikoak partzialki galtzea eragin da. Dirudienez, haren funtzionalitatea berreskuratu daiteke gizakiaren jarduera desagertzen bada eta, nolabait, maila freatikoaren igoeraren bidez, eragindako kalteak konpontzen badira, esfagnoak haz daitezen.

Hainbat neurri hartu dira hura lehenera ekarri ahal izateko, besteak beste: hesi bat haren inguruan ezartzea (2008) nahiko laukizuzena den azalera bat eratuz 52.550 m2 eta 958 m perimetroduna, eta estalkirik gabeko zohikatza duten guneak babestea koko zuntz biodegradagarriko sare geotestil baten bidez, 2 m alboetako laukiak sortzen dituzten enborretara finkatuta (2010-2013). Bere helburua higadura saihestea eta begetazioa berriz haztea da.

Gaur egun Red Natura 2000 sarearen barruan dago Kontserbazio Bereziko Zonalde gisa.



Sare geotestil batek babestutako zohikaztegiaren sektore bat, enborren bidez finkatuta, zohikatza ere ikus daiteke fibazo bat sortuz eta baita hura estaltzen duen begetazioa ere. Iturria: Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua. CCbySA.



Zohikaztegiaren inguruko egurrezko itxitura. Iturria: Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua. CCbySA.

Gehiago jakiteko: Determinación de los valores ambientales de la turbera de Zalama y propuestas de actuación para su conservación / Patxi Heras. Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, 2002. 85 p.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / G.Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 466625.3352 // Y: 4775815.4011 // Z: 1329 m Hesiz inguratutako zohikaztegia ikusten da (1), bertan ez ganadura ez ibilgailuak sar ez daitezen eta higatutako zonaldea babestuta dago sare geotestil baten bidez, 2m alboetako laukiak eratzen dituzten enborren bidez sendotuta (2).